

**BETERRI-BURUNTZA
MANKOMUNITATEKO
2025eko EKINTZA
PLANA**

1.	ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA.....	3
1.1.	ZERBITZU OROKORRAK	3
1.1.1.	INSERTZIO SOZIOLABORALERAKO ORIENTAZIO ZERBITZUA.....	3
1.1.2.	ENPLEGU SOZIALEKO EKOSISTEMAREN KUDEAKETA ETA SARETZA.....	3
1.1.3.	LAN ESKAINTZEN KUDEAKETA ZERBITZUA	3
1.2.	EGITASMOAK	3
1.2.1.	ELKAREKIN EGITASMOA	3
1.2.2.	HAZILAN +.....	4
1.2.3.	TOKIKO ENPLEGU EKINTZAK	4
1.2.4.	KULTUR ETA SORMEN SEKTOREA ETA ENPLEGUA	4
1.2.5.	TALENTUAREN KUDEAKETA: SENIOR TALENTUA.....	5
1.2.6.	PRESTAKUNTZA	6
2.	ZAINTZA	6
2.1.	EGITASMOAK.....	6
2.1.1.	DIAGNOSTIKOAREN EGUNERAKETA	6
3.	ENPRESA ETA SUSTAPENA	7
3.1.	ZERBITZU OROKORRAK	7
3.1.1.	AHOLKULARITZA ZERBITZUA	7
3.1.2.	ENPRESEN SARETZA ETA FORMAKUNTZAK	7
3.1.3.	DIRULAGUNTZEN INFORMAZIOA ETA AHOLKULARITZA	7
3.2.	EGITASMOAK	8
3.2.1.	BETERRI BURUNTZA DIGITALA	8
3.2.2.	BETERRI BURUNTZA DIGITALA HERRIAN	8
3.2.3.	HAZINNOVA	8
3.2.4.	LANAREN ZENTZUA	9
3.2.5.	ENPRESEN ERRESILIENTZIA LANTZEN	9
3.2.6.	ENERGIA DIAGNOSTIKOAK ENPRESETAN	10
3.2.7.	KARBONO AZTARNAREN KALKULUA ENPRESETAN.....	10
4.	EKINTZAILERAK	11
4.1.	ZERBITZU OROKORRAK	11
4.1.1.	AHOLKULARITZA ETA ORIENTAZIO ZERBITZUA.....	11
4.1.2.	UDALETAKO JARDUERA BERRIENTZAT DIRULAGUNTZEN KUDEAKETA ..	11
4.1.3.	LANBIDE HEZIKETAN SENTSIBILIZAZIO SAIOAK	11
4.1.4.	NEGOZIO BERRIEN IKUSGARRITASUNA (SUSTAPENA ETA LANKIDETZA)	11
4.2.	EGITASMOAK	12
4.2.1.	ENPRESAK SORTU ETA GARATZEKO PROZESUA SUSTATZEKO PROGRAMA: TXEKIN/EMEKIN	12
4.2.2.	LANBIDE EKINTZAILE.....	12
4.2.3.	ENPRESA KUDEAKETA FORMAKUNTZA SAIOAK.....	12
5.	TURISMOA	12
5.1.	ZERBITZU OROKORRAK	12
5.1.1.	AHOLKULARITZA	12
5.2.	EGITASMOAK	13
5.2.1.	LEHIAKORTASUN PROGRAMA: KODE ETIKOA.....	13
5.2.2.	PRODUKTU PROGRAMAK: ENOGASTRONOMIA	13
5.2.3.	PRODUKTU PROGRAMAK: FAMILIA TURISMOA.....	14
5.2.4.	TURISMO HAUSNARKETATIK ERATORRITAKO EKINTZAK	14
5.2.5.	TURISMO-SUSTAPENA	14

1. ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA

1.1. ZERBITZU OROKORRAK

1.1.1. INSERTZIO SOZIOLABORALERAKO ORIENTAZIO ZERBITZUA

Mankomunitateak eskaintzen duen etengabeko zerbitzua da, egoera zaugarrian dauden pertsonen artatzea eta jarraipena ahalbidetuz eta eskualdeko baliabide ezberdinetara deribazio lanak burutuz. Besteak beste, enplegu sozialeko ekosistemako baliabide ezberdinetatik ateratzen diren pertsonen berrorientazioa burutu eta gizarte zerbitzuetatik deribatzen diren pertsonekin orientazio laborala eskaintzen da.

1.1.2. ENPLEGU SOZIALEKO EKOSISTEMAREN KUDEAKETA ETA SARETZEA

Sarea koordinazio, lankidetzeta eta elkarlan-espazio egonkorra da, lan-merkatuan sartzeko edo mantentzeko zailtasunak dituzten pertsonak gizarteratzearekin edo laneratzearekin modu batera edo bestera lotuta egon daitezkeen eragileek osatzen dutena, haien jarduerak eraginkorragoak eta efizienteagoak izan daitezen edo testuinguru bakoitzera egokitutako erantzun berriak gara ditzaten.

Sarea, sarearen parte diren eragileak eta gobernantza sistema bera koordinatu eta artikulatzea Mankomunitateak modu egonkorrean burutu beharreko lana da.

1.1.3. LAN ESKAINTZEN KUDEAKETA ZERBITZUA

Eskualdeko langabetuen beharrak eta enpresako lan aukerei erantzuteko, eta laneratzeko edo lana hobetzeko helburuarekin, lan eskaintzen kudeaketa zerbitzu bat martxan jartzea da proposamena, webgune edo enplegu atari bat artikulatuz.

1.2. EGITASMOAK

1.2.1. ELKAREKIN EGITASMOA

Elkar-EKIN lanean, lurraldean enplegarritasunerako eta aktibazio inklusiborako estrategia bat da. Estrategia horren bidez, ekonomia suspertzeko eta lehiakortasunerako, kalitatezko enplegurako eta gizarte-politiketarako estrategia integratu baten garapena bultzatu nahi da, pertsonen eta, bereziki, kolektibo hauen gizarte-kohesioa hobetzeko:

- Baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak
- Langabezian dauden eta enplegarritasun-maila ertain-txikia duten pertsonak
- Enplegua duten eta lan-prekarietateko egoeran dauden pertsonak

Programa hau Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmen baten baitan garatzen da. Hurrengo hitzarmen epealdia 2025-2026 urte bitartekoa izango da. Egitasmo honen baitan, 2025ean, Enplegu Sozialaren sarea osatzen duten eragileekin

elkarlanean sortutako proiektuak exekutatu dira. Era berean, sarearen antolakuntza eta artikulazioari garrantzia berezia emango zaio.

1.2.2. HAZILAN +

Hazilan+ kualifikazio maila ertain-altua duten langabeen laneratzea eta enplegarritasuna hobetzeko programa bat da, kualifikazio-maila ertain-altua izan arren lan-merkatuan sartzeko edo berriro sartzeko zailtasunak dituzten pertsonei zuzendua.

Europako Gizarte Funtsak diruz lagundutako programa bat da, eta Garapen Agentzien Euskal Elkarteak (Garapen) garatzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Garapen Agentziekin lankidetzan.

6 urteko programa bat da eta 2 ibilbide posible garatu daitezke: OSATU (Berrikuntzarekin eta garapen pertsonalarekin lotutako gaitasun pertsonalen entrenamendu-programa eta enpresako praktikak) eta LORPEN (Berriazko esku-hartzea, parte-hartzaileen gizarteratze zuzena lantzerantz bideratutako banakako mentoring prozesuak).

2025ean Osatu eta Lorpen ibilbide bana jarriko dira abian.

1.2.3. TOKIKO ENPLEGU EKINTZAK

Tokiko Enplegu Proiektuak, tokian-tokiko esparruan enpleguaren tokiko sustapena eta garapena bilatzen duten programa zehatzak dira. Beterri-Buruntza eskualde mailan 2012an egindako Eskualdeko Enplegu Planaren baitan proposatu ziren neurrien artean kokatzen dira.

Tokiko Enplegu Proiektuak Lanbidek urtero ateratzen duen enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako diru-laguntzen deialdiaren bidez finantziatzen da.

Enplegua sustatzeko toki-ekintzen barruan bi mota bereizten dira:

1. Mota: enplegua sustatzea (1 mota) aldi baterako lan-esperientzia bermatzen duten kontratazioak langabetuen enplegarritasuna sustatu asmoz.
2. Kontrataziorako dirulaguntzak (2 mota) langabeak tokiko enpresek merkatu arruntean kontratatzea errazteko laguntzak.

2025an bi modalitateak martxan jarriko dira.

1.2.4. KULTUR ETA SORMEN SEKTOREA ETA ENPLEGUA

2012an eskualdean garatutako diagnostiko sozioekonomiko eta lan merkatuaren diagnostikoan egindako azterketak aukera eremu bezala jasotzen zuen: *“Apoyo a sectores singulares: promoción del sector cultural”*. Urte berdinean egindako Enplegu planean kultur sektorearen aipamena eremu ezberdinetan jaso zen: *“la comarca presenta un carácter eminentemente industrial, con algunos sectores de actividad menores pero significativos como la industria de la sidra o la producción cultural, audiovisual...”*. *“La comarca cuenta con posibilidades de impulsar nuevos sectores*

estratégicos en relación a: agricultura ecológica y de proximidad, turismo y gastronomía, industria cultural así como la industria sostenible ambientalmente”.

Plan honetan beraz presentzia berezia zuten jarduerak eta garapen-aukera gisa ikusi ziren, besteak beste, kultura eta sormen-industriak eta euskal hizkuntzaren eta kulturaren alde antolatutako gizarte- eta erakunde-jarduerak. Eragile espezializatuen sare garrantzitsu bat izanik (prestakuntza-zentroak, unibertsitatea, erakunde publikoak, fundazioak, etab.), ondare artistiko, kultural, natural eta sozial garrantzitsua duen eskualde gisa idenfitikatzen zen, jarduera eta enplegua sortzen dituen mugimendu sozial eta kultural indartsu batean islatzen dena.

Ordutik kultur eta sormen sektorean (modu orokorrean, ez eskualdean bertan) aldaketa batzuk eman badira ere, oraindik gaur egun prekarizatua, ikusezina eta ezezaguna den sektore bat izaten jarraitzen du, potentzialitate berezitasun anitzak dituen, enpleguari eta lan baldintzei dagokionez. Hain zuzen, berezitasun horiek onartuz azken urteetan “artista eta kultur langileen estatutua” landu eta lantzen ari da, arte eta kultura-esparruko langileei eragiten dien hainbat erreforma berri proposatzen dituen (langabeziagatiko lehen prestazio berezia; kultura arloko autonomoen araubidearen erreformak; zuzeneko eta ikus-entzunezko ikuskizunetako teknikarientzako Lanbide Heziketako prestakuntza-eskaintzaren erreformak; iraupen mugatuko lan-kontratu artistikoak edo aldizkakotasunari egokitutako langabezia-prestazioak...).

Enplegu sailetik, sektore honen errealtatea ezagutu nahi da, azterketa zehatz bat eginaz eta berariaz diseinatutako proposamen bat landuz, hain zuzen, kalitatezko enplegu batera begira sektorearen beharretara egokitutako ibilbide bat jorratzeko asmoz.

1.2.5 TALENTUAREN KUDEAKETA: SENIOR TALENTUA

Talentuaren kudeaketaren helburu nagusietako bat da enpresak bilatzen duenarekin bat datozen trebetasunak, ezagutzak eta balioak dituzten gizabanakoak identifikatzea eta erakartzea da batetik, baina dagoen ezagutzaren mantentzea ere erronka nabarmena da. Horri, adinaren faktorea gehituta, lan munduan nagusi den edadismoa eta senior talentuaren galerarekin egingo dugu topo. Nabaria da honek egungo profesional eta enpresentzat sortzen dituen mehatxua eta aukerak aztertze beharrak.

Seniorrak diren profesionalen ezagutzaren kudeaketa ez dago inolako agendetan ikusgai eta beharrezkoa da. Enplegu ikuspegi batetatik, pertsonen ibilbide profesional osoari erreparatu behar zaio, lan merkatuan txertatzea ahalbidetu, ibilbide profesionalean akonpainatu eta amaieran ere lanketa burutuz, eta lan eremutik ateratzerako momentuan ere prozesua erraztuz.

Proposamena da hiru norabideetan lan egitea:

- Profesional seniorrak beren karreraren garapenean ahaldunduz (motibazioak ulertu, formakuntza jarraitua, talentu seniorren ezagutzaren transferentzia eta optimizazioa...)
- Profesional seniorrak lan merkatutik ateratzerako ordurako prestatuz (informazioa eskaintzea eta baliabide ezberdinetara deribazioa ahalbidetzea)

- Belaunaldien arteko errelebo-prozesuetarako jarduera planak burutzen lagunduz (enpresa/erakunde ezberdinetako plantillen analisia, epe ertainerako beharren aurreikuspena, formakuntza beharren identifikazioa, ezagutzaren transferentziaren prestakuntza...).

1.2.6. PRESTAKUNTZA

Beterri-Buruntza Mankomunitateak, Mankomunitateak berak sustatuta eta eragile ezberdinekin elkarlanean, lan edo lanbide orok eskatzen dituen gaitasunak eskuratzeko eta/edo hobetzeko ikastaroak antolatzen ditu.

Helburu horri begira prestakuntza ezberdinak antolatzen ditu, langabezia egoeran dauden pertsonen zuzendutako formakuntza (ElkarEkinen baitako ibilbideetan bereziki) bai eta formakuntza jarraia ere.

2025ean zehar bi ildoei heldu nahi zaie:

- Eskualdean dauden eta formazioa eskaintzen duten eragile ezberdinekin elkarlana sustatu eta sinergia bideak bilatu
- Eskaintzen ez den eremuetan formakuntza proposamenak ahalbidetu

Azken atal honi dagokionez, 2025ean lanaren ongizatean begirada jartzea da proposamena. Lanaren ongizateari erpin ezberdinetatik heldu ahal zaio. Lanaren zentzuaren programak lanean ongizatea sentitzeko eremu batzuk definitu eta lantzen dituen bezala (autonomia, konpetentzia, harremanak eta helburuak), lanarekiko asebetetzeak ere pertsonaren beste eremuekin mantentzen duen oreka ere garrantzitsutzat jotzen da. Hau da, lana eta lana ez den eremuen arteko oreka bat ere beharrezkoa da pertsona ondo egoteko, lan eremuan, eta lanetik kanpo.

Inoiz baino baliabide gehiago ditugun garai honetan, ongizatea ezbaian dago. Formakuntzarekin proposatzen dena hain zuzen oreka horretara begira egin dezakegun lanketan zentratzea da. Hau da, pertsona baten esfera guztietan, laborean barne, oreka izatea ahalbidetzeko eskuratu beharreko konpetentzietan (denboraren optimizazioa, bizitza sozial, laboral eta familiarraren kontziliazioa...).

2. ZAINTZA

2.1. EGITASMOAK

2.1.1. DIAGNOSTIKOAREN EGUNERAKETA

2024an abian jarritako zaintza mahaiaren azalera tutako beharretako bat 2019an egindako zaintzaren inguruko eskualdeko diagnostikoaren eguneraketa bat burutzea izan zen. Orduetik udalerrri bakoitzak ibilbide ezberdina izan du, baliabide berriak sortu dira eta gaiak agenda politikoetan leku garrantzitsua hartu du. Hortaz, orduan egindako diagnostikoa eguneratzearen beharra ikusten da.

3. ENPRESA ETA SUSTAPENA

3.1. ZERBITZU OROKORRAK

3.1.1 AHOLKULARITZA ZERBITZUA

Orientazio eta laguntza-zerbitzua eskaintzen diegu eskualdeko enpresei, lehiakortasuna hobetzeko ekintzak aurrera eramateko bidelagun izan nahi dugu. Mankomunitatea beraien erreferente izatea da helburu, banakako aholkularitza pertsonalizatuaren bidez eskualdeko enpresa ehunaren lehiakortasuna handitu, enplegua sortu eta eskualdearen garapen sozioekonomiko orokorrari laguntzeko.

3.1.2. ENPRESEN SARETZA ETA FORMAKUNTZAK

Eskualdeko ETEak eta enpresa eragileak bultzatzen ditugu, eta enpresen lankidetzasarea sustatzen dugu, proiektu berriak sortu eta enpresa-ehunaren eraldaketa eta lehiakortasunean sinergiak bilatu eta aurrera pausoak emateko.

Horretarako, eskualdeko enpresa eta eragileen sare zabal eta sendoa osatu nahi dugu, non ETEak, elkarteak, klusterrak, hezkuntza eskolak, finantza erakundeak, tokiko erakundeak eta eskualdeko beste hainbat eragileen saretzeari ekingo diogun.

Behin sare honek gutxieneko dimentsioa duenean, sare mailako topaketak egitea aurreikusten dira, networking formatuan. Topaketa hauen helburua eskualdeko eragileek elkar ezagutzea da; esperientziak partekatu eta elkarlana sustatzeko besteak beste.

Era berean, eskualdeko enpresa-ehunaren beharren arabera formakuntzak ere aurreikusten dira: prestakuntza zehatzak gai espezifikoaren inguruan edota bestelako lanketa zabalagoak. Saretze prozesu guztian zehar identifikatutakoaren arabera diseinua lehenetsiko da.

3.1.3. DIRULAGUNTZEN INFORMAZIOA ETA AHOLKULARITZA

Mankomunitatearen baliabideen arabera, interesgarriak izan daitezkeen dirulaguntza desberdinen inguruko informazioa landu eta zabalduko da. Era berean, dirulaguntza zehatz horietan edota bestelakoetan interesa adierazten duten enpresei haien kudeaketan aholkularitza zein bidelaguntza emango zaie.

Adibide gisa Espainiar estatuak, Europar funtsekin batera, finantzatzen duen *Kit Consulting* dirulaguntza aipatu genezake. ETEei beren negozioaren eraldaketa digitala sustatzeko aukera ematen diena, Beterri-Buruntza Mankomunitateak jada martxan dituen beste egitasmo batzuk osatuz.

3.2. EGITASMOAK

3.2.1 BETERRI BURUNTZA DIGITALA

Ekimen honek Beterri-Buruntzako ETEen eraldaketa digitala bizkortu nahi du.

Hau da, Beterri-Buruntza Mankomunitateak eskualdeko enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna eta jasagarritasuna hobetzeko garatzen ari den ildo estrategikoei erantzuten dio jarduera honek, enpresa horien kudeaketa, berrikuntza eta digitalizazioa hobetzen lagunduz.

Prozesuen kudeaketa, fabrikazio eta merkaturatze-eremuetan eraldaketa digitaleko tresnak txertatzen eta enpresek jarraitu behar dituzten digitalizazio ibilbideak diseinatzen eta ezartzen laguntzen die ETEei.

«Beterri Buruntza Digitala» aholkularitza-programa espezializatu eta pertsonalizatua da. Programaren helburua da enpresaren abiapuntuko egoera digitala diagnostikatzea, azterketa sakon bat eskaintzea eta eraldaketa-plan bat egitea.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren eta Beterri-Buruntzako Mankomunitatearen elkarlaneko egitasmoa da.

3.2.2. BETERRI BURUNTZA DIGITALA HERRIAN

ETEen, hiriko ekonomiako negozioen eta profesionalen digitalizazio-beharrei erantzuteko prestakuntza saioak eskainiko ditugu. Gaitasun digital pertsonalen hobekuntzara eta ETEen eraldaketa digitalarekin aurrerapausoak ematera bideratutako gaiak landuko dituzten jardunaldiak antolatuko dira.

Gipuzkoako Industria Ingeniarien Elkargo Ofizialaren OAPR-an lankidetzan garatutako egitasmoa; beti ere Ingeniariak eta Europako Funtsen finantzazioaren luzapenaren baitan.

3.2.3. HAZINNOVA

Hazinnovak ETE-ei lehiakorragoak izaten laguntzen die, berrikuntza proiektu txikiak modu azkar eta seguruan landuz.

5 langile baino gehiago industria enpresa eta industriara lotutako zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresei bideratutako programa da.

ETEek aditu baten eskutik laguntza pertsonalizatua jasotzen dute, ondorengo gaietan proiektu berritzaileak gauzatzeko: ekoizpena, bezeroak, pertsonak, ekonomia eta finantza kudeaketa, administrazio prozesuak, prozesuak, merkatu berriak, produktua eta logistika.

Innobasque eta Beterri-Buruntzaren arteko lankidetzeta-hitzarmenaren bidez gauzatzen da egitasmoa.

3.2.4 LANAREN ZENTZUA

Talentu ihesa ekidin, enpresa baten langile diren pertsonen inplikazioa eta ongizatea areagotu eta antolaketa-errendimendua hobetzea ahalbidetuko duen proiektua da, Beterri-Buruntza eskualdeko enpresei bideratuta dagoena. Enpresako langileak diren pertsonen ongizate maila ezagutu eta hobetzeko ekintzak identifikatzea ahalbidetzen du egitasmoak.

Epe ertainera, langileen ongizatea areagotzeak lan-errotazioa saihesteko aukerak emango ditu, ezagutza eta talentuaren galera ekidinez, eta horrenbestez lehiakorragoak izatea eraginez.

Mondragon Unibertsitateak garatutako metodologia batean oinarritzen da:

- Sentsibilizazioa eta ibilbide orriaren antolakuntza. Zuzendaritza taldearekin lehen hausnarketa.
- Diagnostikoa. Adostutako langile laginari formularioa pasatzea.
- Hausnarketa kritikoa. Emaitzen arabera gogoeta identifikatutako eremuen arabera.
- Hobekuntzen identifikazioa. Eremu ezberdinetara bideratutako ekintzen identifikazioa.

GFA eta Beterri-Buruntzaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren bidez gauzatzen da egitasmoa.

3.2.5 ENPRESEN ERRESILIENTZIA LANTZEN

Egitasmo honen bitartez egun enpresek bizi duten ziurgabetasun eta ezegonkortasun testuinguruan, epe ertainera aurki ditzaketen erronkei aurre egiteko prest egotea bilatzen da. Beterri-Buruntza eskualdeko enpresak krisi eta egoera berriei aurre egiteko ahalmena lortzea da xedea. Beti ere enpresa bakoitzak bizi duen errealitatea presente izanda.

Kanpo aholkularitza baten bitartez, aurrera eramango den prozesuan negozio bakoitzaren egungo errealitatek abiatuta, aurreikus daitezkeen behar eta erronka berriak identifikatzea, eta ekintza eta soluzio berriak definitu eta kontzeptualizatzea da proiektu guztian zehar landuko dena.

Aurreikus daitezkeen erronka bat ondorengotza izan badaiteke ere, eskualdeko enpresek beste gai batzuk jada aipatu izan dituzte (internazionalizazioa, langileen parte-hartzea enpresaren baitan...).

Ondorengotzaren gaia esaterako, eraldaketa demografiko baten erdian murgildurik gauden honetan eta belaunaldi-ordezkapenaren garaian egonik, ezinbestean landu beharrekoa da. Negozioen jarraipena errazteko eta hauen lehiakortasuna hobetzea helburu duen proiektua liteke hau. Eskualdeko enpresen eskualdatzeari buruzko prestakuntza eta aholkularitza eskaini nahi da, zehazki.

Bi hartzailerik zuzendua dago: negozioa eskualdatzeko interesa duen jabeak eta negozioari jarraipena eman nahi dion ekintzaileak. Ondorengotza prozesuak aurretik

behar bezala planifikatu eta aktibitate ekonomikoei jarraipena ematea izango litzateke egitasmo honen helburua.

3.2.6. ENERGIA DIAGNOSTIKOAK ENPRESETAN

Enpresa baten funtzionamendurako beharrezkoa den energia-kontsumoari lotutako kostuak faktore garrantzitsuetako bat dira lehiakortasunaren hobekuntza helburu gisa planteatzerakoan. Eta batez ere, energia-trantsiziorako bidean, enpresen energia-kontsumoak nolakoak diren ezagutzea erabat beharrezkoa da kontziente izateko eta hobekuntzak egin ahal izateko.

Eskualdeko enpresen energia-eraginkortasunaren egoera aztertu nahi da, baita enpresen energia-efizientzia hobetzeko moduak ere. Helburuak, beraz, energia kontsumoa eta kostuak murriztea, ingurumenerako hobekuntzak egitea, jarduera ekonomikoari eta enpleguari eusten laguntzea, hornidura jasangarri eta eraginkorrek lortzea, arriskuak murriztea eta energia -eta ingurumen- trantsizioan kokapen on bat lortzea izango dira.

Industria-enpresak dira lehentasunezko sektorea, baina, beste perfil batekoak ere lantzen gabiltza: hala nola, sektore interesgarri batzuk hotelak, ileapaindegi-estetika zentro, elikadura-enpresak, edota lehen sektoreko ustialekuak.

Metodologiari dagokionez, 3 urratsetan oinarritzen da:

1. Informazioa biltzea: horretarako, online beharrezko informazioa eskatzen zaie enpresei, eta ondoren, hautatutako enpresak bisitatzen dira.
2. Analisia eta kalkuluak: aurkeztutako dokumentazioaren azterketa egiten da, egungo energia-egoeraren arabera. Autokontsumorako instalazio fotovoltaiorako proposamenak dituzten eta aholkularitza eskatzen duten enpresen kasuan, txostenean gomendio eta ohar batzuk sartuko dira, enpresa horiei erabakiak hartzeko orduan laguntzeko.
3. Azken ondorioak: ondorioak aurkeztea enpresei, baldintza partikularrei buruzko ikuspegi didaktikoarekin baita kontuan hartu eta kudeatu/kontrolatu beharreko elementuei buruzkoak ere.

3.2.7. KARBONO AZTARNAREN KALKULUA ENPRESETAN

Ekonomia berdea enpresen lehiakortasunerako giltzarri izanik, IHOBEn karbono-aztarna kalkulatzeko tresna erabiliko da eskualdeko enpresetan ingurumen-metrikak garatzen hasteko.

Erakunde bakoitzaren karbono-aztarna kalkulatzeko 1 eta 2 irismenak kalkulatu dira. Orohar, enpresaren barruko zuzeneko eta zeharkako emisioak kalkulatu dira lehenengo, datu errealak lortzea errazagoa baita. Behin irismen hauek kalkulatu 3 irismena ere kalkulatu daiteke, ahalegin handiagoa eginez gero eta ondoren, erakundeak BEG emisioak gutxitzeko prozesuarekin jarrai daiteke: lehenik eta behin, identifikatu behar du zer eremutan jardun dezakeen ahalmen handiagoz; gero, berriz, atxikitako emisioak murrizteko ekintzak ezarri beharko lituzke enpresak.

4. EKINTZAILETZA

4.2. ZERBITZU OROKORRAK

4.1.1. AHOLKULARITZA ETA ORIENTAZIO ZERBITZUA

Enpresa ideia duen edota enpresa proiektua martxan jarri nahi duen eskualdeko ekintzaileei (edo proiektua eskualdean kokatu nahi dutenei) bideratutako aholkularitza zerbitzua da.

Helburua enpresa berriak lehiakor izan daitezen baliabideak eskaintzea da. Gainera, sustatzailearen bidelagun izango gara ekintzailatza bide osoan, enpresa ideia duenetik merkatuan kontsolidatu arte.

Eskaintzen diren zerbitzuak: Negozioaren bideragarritasunaren azterketa, forma juridikoaren hautaketa, finantza baliabideen informazioa, dirulaguntzen bilaketa, aktibitatea martxan jartzeko izapideen informazioa (Ogasuna, Gizarte Segurantzza, Autonomoen erregimena) ...

4.1.2. UDALETAKO JARDUERA BERRIENTZAT DIRULAGUNTZEN KUDEAKETA

Ekintzailea aholkularitza zerbitzura datorrenean, jarduera ekonomiko berriak sustatzea helburu duten dirulaguntzen informazioa mahairatzen zaio. Besteen artean, negozio berriak sortzeko eskualdeko udalek dituzten dirulaguntzen informazioa azaltzen zaio. Kasuan kasu, eskabidea bideratu, Bideragarritasun Planaren lanketa gauzatu eta udaletako teknikariek informazio trasbasea gauzatzen da.

4.1.3. LANBIDE HEZIKETAN SENTSIBILIZAZIO SAIOAK

Berriaz eskaera egin duen ikasketa zentroaren bitartez (aurrerago beste batzuetara zabaldu liteke), sentsibilizazio saioak eskaini nahi zaizkie lanbide heziketako ikasleei. Lan merkaturatzeko orduan, autoenpleguaren aukeraz informatu nahi zaie, besteren kontura lan egitearekin alderatuz. Helburua ekintzailatza, lan merkaturatzeko aukera bezala kontuan har dezaten informazioa eskaintzea da, baita ekintzailatza kolektiboaren aukera azaltzea ere. Gainera, bertako ikasleei beraien enpresa ideiarekin lagunduko zaie, banakako aholkularitza bidez.

4.1.4. NEGOZIO BERRIEN IKUSGARRITASUNA (SUSTAPENA ETA LANKIDETZA)

Zerbitzu honen helburu nagusiak honakoak dira: ekintzaileen komunitate sendoa sortu, Beterri-Buruntza ekintzailatza zerbitzua ikusarazi, ekintzaileen egitekoa eta eskualdeari egiten dioten ekarpena ikusarazi, gertutasuna erakutsi eta gure presentzia digitala areagotu. Horretarako, zerbitzutik laguntzen diren aktibitate sortu berrien argitalpenak egingo dira gure sare sozialetan, beraien egitekoa zabalduz eta guregandik jaso duten laguntzaz informatuz.

4.2. EGITASMOAK

4.2.1. ENPRESAK SORTU ETA GARATZEKO PROZESUA SUSTATZEKO PROGRAMA: TXEKIN/EMEKIN

Enpresak sortu eta garatzeko prozesua sustatzeko dirulaguntzak Gipuzkoako Foru Aldundiaren programa da. Beterri-Buruntza Mankomunitateak eta bertako profesionalak bertan aholkularitza eta laguntza teknikoko zerbitzuak emateko homologazioa lortu dute 2024. urtean.

Programako Txekin eta Emekin egitasmoen bidez, ekintzaileei beraien enpresa proiektuak garatzen laguntzen zaie, gauzazko laguntza moduan. Emekinen kasuan gainera, emakume ekintzaileek Bideragarritasun Plana gauzatu eta justifikatzean, besteak beste, aholkularitza fiskaleko jardueretako zerbitzuak urte betez kosturik gabe jasotzeko aukera izango lukete.

4.2.2. LANBIDE EKINTZAILE

Ekintzaileei laguntzeko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren dirulaguntzak. Ekintzaile langabetuei bideratutako hiru hilabeteko egitasmoa da. Bertan, ekintzaileei enpresa ideia bat garatzen eta proiektu berriak abiarazten lagunduko zaie, behar duten prestakuntza eta tutoretza eskainiz. Gainera, sustatzaileek dirulaguntza bat jasotzen aukera dute ideia aztertu edota martxan jartzeko programa gauzatzeagatik. Lanbideren laguntza programa da eta Beterri-Buruntza Mankomunitateak entitate laguntzaile gisa aritzeko eskaera gauzatu du 2024. urtean.

4.2.3. ENPRESA KUDEAKETA FORMAKUNTZA SAIOAK

Eskualdeko ekintzaile eta enpresari txikiei bideratutako formakuntza saioak eskaintzea da helburu. Negozioa modu lehiakor batean kudeatzeko ekintzaile/enpresari txikiei beharrezkoak dituzten kudeaketa gaitasunak hobetzen lagundu nahi zaie, negozio baten kudeaketak barneratzen dituen alor desberdinetan tailerrak jorratuz: zerga kudeaketa, lan arloa, plan komertziala, negozioa abiatzerakoan kontuan hartu beharrezkoak, forma juridikoak, eratzeko izapideak etab.

5. TURISMOA

5.1. ZERBITZU OROKORRAK

5.1.1. AHOLKULARITZA

Eskualdeko turismo eragileei zein udalei aholkularitza eta laguntza eskainiko die Mankomunitateak, turismo alorrean. Horretaz gain, martxan jartzen diren dirulaguntza interesgarrien berri ere emango die.

5.2. EGITASMOAK

5.2.1. LEHIAKORTASUN PROGRAMA: KODE ETIKOA

Basquetour Turismoaren Euskal Agentziak kudeatzen duen programa hau eskualdeko eragile turistikoetara zabaldu eta aplikazioan lagundu nahi da. Kode Etikoaren printzipioak Nazio Batuetako 2030 Agendaren Garapen Jasangarriaren 17 helburuak eta euskal berezitasunak eta gure kulturaren ezaugarri propioak dira.

Euskadiko turismo-sektoreko erakunde eta enpresa turistikoei bideratutako egitasmoa da eta helburu nagusiak dira, alde batetik, eragile turistikoek bertako kultura eta tradizioa eta ondare kulturalaren errespetua eta zaintza onartzea, eta bestetik, bertako komunitateek turismo-jarduerekin bat egin dezaten eta onura ekonomikoak, sozialak eta kulturalak izan ditzaten (enplegua bereziki) lan egitea.

Helburu hauek lortzeko Beterri-Buruntza Mankomunitatetik egingo diren lanak hurrengoak dira:

- Kode etikoaren inguruko informazioaren azalpena eta zabalkundea
- Enpresei egiaztapena lortzeko prestakuntza-ibilbidean laguntzea
- Konpromiso ibilbidean laguntza
- Basquetour eta enpresen arteko zubi-lana egitea
- Eragileei bukaera memoriaren idazketan laguntza
- Turista arduratsuen gidaren hedapena

5.2.2. PRODUKTU PROGRAMAK: ENOGASTRONOMIA

Eusko Jaurlaritzak eta Basquetour Turismoaren Euskal Agentziak sustatutako programa da. Euskadiko produktu turistiko gastronomikoaren balioak eta euskal kultura gastronomikoan oinarritutako lan-filosofia partekatzen duten eragileen sarea sustatuko da bere bitartez.

Enpresa turistikoei zuzendutako egitasmoa da: jatetxeak, sagardotegiak, tabernak, ekoizle bisitagarriak, ostatu gastronomikoak, denda espezializatuak...

Helburu nagusiak Turismo eragileen artean Euskadi Gastronomika programa ezagutaraztea, Euskadi Gastronomika Balioen Gutuna zabaltzea, sareko beste kide batzuekin lankidetzak sustatzea, eragile turistikoei euskarri tekniko eskaintzea eta enpresaren posizioa/irudia eta lehiakortasuna hobetzea izango dira.

Horretarako, Beterri-Buruntzako Mankomunitateak beteko dituen funtzioak hurrengoak izango dira:

- Enpresa turistikoei programa honek dituen eskakizunetan laguntzea
- Turismo gastronomikoko produktua edo zerbitzua hobetzeko laguntza
- Turismo enogastronomikoaren sareko beste eragile batzuekin ezagutza partekatzea
- Produktu edo eskaintza bateratu erakargarriagoa eta lehiakorragoa sustatzeko ekimenak sustatzea

5.2.3. PRODUKTU PROGRAMAK: FAMILIA TURISMOA

Familia Turismoan erreferente bihurtu nahi duten enpresa-turistikoak biltzen ditu programak honek: ostatuak, enpresa eno-gastronomikoak, turismo-zerbitzuetako enpresak. EAera hurrekin bidaiatzea erabakitzen duten familien beharrak asetzeko ezarritako betebeharrak guztiak bermatu behar dira.

Helburu nagusia EAeko turismo-sektoreko enpresetatik eskaintza espezializatua eta hurrak dituzten familiei eskaintzen zaizkien zerbitzuak etengabe hobetzea izango da eta horretarako Beterri-Buruntza Mankomunitateak hurrengo zerbitzuak eskainiko ditu:

- Enpresa bakoitzaren elementuak, ekipamenduak, instalazioak, zerbitzuak eta jarduerak, estrategia eta kudeaketa aztertu
- Enpresak bisitatu, programan atxikitzen laguntzeko
- Familia Turismoa Euskadin Klubaren arau-dokumentua oinarritzat hartuta, enpresa bakoitzaren diagnostiko-txostena egin
- Instalazioak, zerbitzuak eta kudeaketa baloratu, familia-turismoaren baitan

5.2.4. TURISMO HAUSNARKETATIK ERATORRITAKO EKINTZAK

2024ko azken hiruhilekoan turismo-hausnarketa egingo da. Hausnarketa partekatu eta parte-hartzailea garatu nahi du Beterri-Buruntza Mankomunitateak, horregatik, etorkizuneko Turismo Estrategiaren oinarri izango den hausnarketa honetan, bereziki garrantzitsua izango da Udalen eta bestelako eskualdeko turismo-eragileen partaidetza.

Turismoaren ikuspegia da hausnarketa honetan landu nahi den gai garrantzitsu bat: turismoa edo aisialdia? Eskualdeko herritarrentzat, bisitariarentzat, edo turistarentzat? Zer eta zenbateraino sustatu? Zein modutan edo zein ekimenen bitartez? Nola egituratu eskaintza? Zein rol edo funtzio izango du eragile bakoitzak?

Hausnarketa honetan etorkizuneko lan-ildoak definituko dira, baita 2025ean garatu beharreko ekintzak ere.

5.2.5. TURISMO-SUSTAPENA

Beterri-Buruntza Mankomunitateak, Gipuzkoako beste eskualdetako turismo agenteekin batera, gure lurraldearen sustapena egiteko zenbait azoketan parte hartzen du. Orain arteko lan hori garatzen jarraituko du, beste eskualdeekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean.